

Jon Mirande 1950-1960 urtetako hamarkadan

Txomin PEILLEN

Garai haletako Pariseko azken fosila izango naiz. Hala diot Jon San Martinekin *Euzko-Gogoako* azken idazleak garelako. Jon Mirande joan zitzaigun, baina haren oihartzuna bizirik dago. Galdera eta kritika onak euskal gizarteari egin zizkion, baina ez beti erantzun onak eman.

Maiz esaten da erbestean egin zela orduko euskal literatura guztia; bai eta ez. Berrogeita bostetik berrogeita hamarreraino bai. Erbestean Parisen idazle asko Montevideo, Buenos Aires, Caracas edo Mexiko aldean zeuden, baina Francopetan eta 50etik gora Hegoaldean garatzen da euskal liburugintza, gure arteko giro ezinago beroan eta ingurumen ezinago hotzean.

Laburzki gogoratzen dizuet hamarkada hartan Euskaraz osoki argitaratu zirela Donostian *Egan*, *Euzko Gogoa* Guatemalan Geroxeako, *Yakin* Arantzazun eta *Karme*le Zornotzan. Azkenik ere *Anaitasuna*. Bi argitaletxe nagusi ziren: bat, liburu bakan batzu euskaraz eman zituenak *Ekin* Buenos Airesen eta, bestea, euskaraz ia denak Itxaropena Zarautzen. Arantzazun eta Balonan erlijio liburuak egiten ziren. Balonan astekari bat zegoen euskaraz: *Herria*. Orduko idazle gehienak apezak ziren, baina nire adiskide gehienak ez: Jon Mirande eta Mitxelenarekin, Irigarai eta Krutwigekin. Aresti eta Ibinagabeitia-rekin euskal liburugintza «desapalzten» hasia baitzen

Nola egin ginen idazle?

Lehen lana izan nuen euskaldun bilakatzea, zeren gerra ondoren 14 urteekin Parisetik Euskal Herrira oporretarako itzuli nintzenean, ez nintzen euskaraz hitz egiteko gai, nahiz egun guztiz etxean entzunik ulertzen nuen. Euskal ortografia 1950an ikasi nuen izeba Anak eman kantu liburu batean. Grafia ia oraingoa zen. Alboan frantsesezko itzulpena zeukan. Jadanik irakurria nituen euskaldunei buruzko frantseskeria guztiak hala nola Onésime Reclus delako batek ziona 1855ean euskarak ez zuela hogeigarren mendea ikusiko eta Iparraldeko euskaldunak ez baziren frantsestu nahi aski zutela Hego-Ameriketara joatea. Tai gabe gure kulturaz Jorge Semprun, Fraga, Miguel Azurmendi, Juan Juaristi eta beste etsaiaskok prediku berdinxka darabilte.

Eta gaineratzen zuen: *«cette langue disparaîtra sans littérature et c'est mourir deux fois que de périr sans chef d'œuvres»* Hizkuntza hori desagertuko da eta bi bider hiltzea da obra nagusirik eman gabe akabatzea. Horixe komentatu genuen Miranderekin, maiz, ezagutu nuen ordutik. Mirandek orduko euskal liburu eta gramatika bazuen.

Lehen euskal lana

Bretolen bidez Pariseko euskaldunak ezagutu behar nituen. Orduan Eusko-Jauriaritzak Pariseko Avenue Marceaur bazuen etxe eder bat. Han biltzen ziren kantari, dantzari eta euskal ikasleak. (Etxe hori Mitterrand orduko Barne Ministroak Francori eman zion denbora berean Euskadi Irratia debekatzen zuelarik) Lehen aldian Andima Ibiñagabeltia ezagutu nuen. Esan nion euskal nazionalismoarekin interesatua nengoela. Hark erantzun euskara lehenik ikas ezazu, eta gero ikusiko duzu abertzaletuko zaren ala ez, baina ez bilaka nazionalista gaztelaniaz baizik hitz egiten duten horien modukoa.

Miranderen ezagutza

Urte berean 1949an Jon Mirande zuberotar jatorrizko idazle berria ezagutarazi zidan. Haren bizpahiru euskal klase jarraitu nituen; ba omen nekien aski, bakarrik hobetzeko eta Andimak gipuzkeraren

Ikasteko Bera eta Mendizabalen metodoa eman zidan. Halatan ere nire lehen hiru ipuinak Jon Mirandek bultzaturik zubereraz idatzi nituen 1950ean Guatemalan, lenen euskara hutsezko aldizkarian Euzko-Gogoan VI.en alean agertu zirenak. Gipuzkera osatua ikasituen Miranderekin batean eta hizkera horretan bi poema argitaratu *Gernika* Buenos Airesen Isidoro Fagoagak egiten zuen aldizkarian. Bata, Txinar gudari, Txinako Txen Huo Txang heroi ospetsuaren heriotza kontatzen zuena, Arestik erabiliko duena *Nire aitaren etxea* olerkiaren idazteko.

Laster hilabetero Ibiñagabeltia, Mirande, nire anala eta lauak bildu ginen arratsaldeetan bataren edo bestearen etxean tertulian. Kafe eta kopa artean elkarri erakusten genizkion, kritikatzin eta zuzentzen gure idazkiak. Garai hartan Mirandek 50etik 53ra irakurri zizkigun. *Euzko-Gogoan* eta *Gernikan* argitaratu ziren poema gehienak gipuzkera osatuan zeuden. Euskara baturantz batean jarri zituen hil eta gero argitaratuko zizkietenak. Euskaldunen eta Francoren zentsuragatik hogei urtez luzatu zen Miranderen olerkien argitalpen oso hori.

Mirande ni baino pixka bat lehentxeago euskaraz idazten hasi zen Eta bere lehenbiziko olerkian bere bi gai nagusi agertu ziren: kristautasunaren aurka izatea, eta Heriotz egunaren hautatzea.

Honela zion:

Soneto

Aspertuaz urturik, txoi neure blotza
 bizi ontako neke ta negarrak aztu.
 eriotz samurrak danak eramango ditu:
 oetzat izango det biar buztin otza.

Gizonok zuen artean nebillen arrotza :
 maitatu nituenak ez naute maitatu,
 adiskide onenak egon dira mutu
 alperretan diet egin zeruel otaitza,

Ez abesti latiniik, ur deunik ez, apalzi
 Ez garbairik analiak, naizenean ilko:
 analaren garbala gezurra baita maiz.
 Lurraren magalean sartu aizeneko

poztu neure gorputza! Bertan egongo naiz
naiz udara, naiz negu, bakean betiko

(1948ko Martxoaren 9ko gutun batean idatzia).

Olerki honetan geroago erabiliko dituen formulak agertzen dira, balna bitxi da nola zortzigarren lerroan agertzen den: *adiskide one-nak egon dira mutu*, politikan jarraitu ez genuelako. Nietzschek itzulpen batekin handik hamar bat urtetara berdin berdina idatziko baitzuen.

Prosodiaren aldetik hor agertzen da nik dakidanez inork zehazki aztertu ez duena: aliterazioen, barne-errimen erabilera, geroko olerki gehienetan aurki genezakeena. Hori zor zaio Mirandek ingeles poesia eredutzat hartzen zuelako eta Ingelera zaharra irakurtzen zekielako. Hona adibidez, beste leku batean aztertu dudan legez, olerki honetan erabili duena *Nil Igitur mors est* olerkian Mirandek berak argigarri moduan idatzi zuen:

Lehen hirur ahapaldiek eroria- tan duate: zarta hots egite hortaz
gogoartu nahi izan dut bizidunaren antsia mundu lazgarri hontan
galdurik izatez, heriorako hor izatez.

Hona gure azterketa. *Lehen ahapaldian* «t» kontsonate leherkaria birresanaz eta kontsonante igurzkarri batzuek ballatuz, bizitza eta bizi ezin jasanaren zama adierazi nahi du eta hona zein silabekin erritmo jarraia sortzen duen:

tu, tu,txo,tza	Aspertzua urturik txo neure blotza
ta, ta, tu	bizi ontako neke ta negarrak aztu
tz, tu	eriotz samurrak denak eramango ditu
tza, za, zti, tza	oetzat izango det bihar buztin otza

Bigarren ahapaldian. Adiskideen, lagunen haren ganako utzikeria deitoratuz, barne-errimekin jarraitzen du

te, en, en, tza	Gizonok zuen artean nenbillen arrotza
tatu, tu, te, tatu	maitatu nituenak ez naute maitatu
on, on	adixkide onenak egon dira mutu
ta, et, to, tza	alperretan diet egin zeruel ototza
mal, ni, na mal	maitatu nituenak ez naute maitatu

Hirugarren ahapaldian. Ez da gehiago igurzkaririk, bizitzaren as-

tuntasunetik herioaren aipamenera doa berriz «ai» diptongo minga-
rriarekin eta «i» bokalarekin

i, i, ik, ik, ai	Ez abesti latiñik ez ur deunik apaiz
ai, ai, ai	ez garbairik anaiak naizenean hilko
ai, bai, bai, ai	naia ren garbaia gezurra baita maiz .

Laurgarren eta sonetoaren azken ahapaldian, bi barne errima
motak erabiliko ditu

en, ean, en	Lurraren magalean sartu haiz en eko
zt,tz, go, ta, go	poztu neure gorputza bertan egongo naiz
ai, ai	naiz udara, naiz negu, bakean betiko

Formaren aldetik 7/6 bertso horietan eta sonetoaren tankeran
ez dago berrikuntzarik, berrikuntza da soneto klasikoaren aurreko
sistema batetik barne-errimaren erabilera

Jon Miranderen olerkiak eta prosa euskal letretan gaien aldetika-
ko lehen haustura, lehen etenaldia izan zen eta modernitatean sar-
tzea. Arestik behin esan zidan moduan «ez banu Miranderen lanik
irakurri ez nuen, beharbada, sekulan euskaraz idatziko» Ongi ulertu
zuten Jokin Zaitegi jesuitak eta Andima Ibiñagabeitiak Mirandek—po-
litika idelak bazter utzita—zer zekarkion euskal literaturari.

Bai halaxen zebilen hamarkadaren azkenean Jon Mirande bere
Aur Besoetako gipuzkera osatuan emana, ezin publikatuz Franco-
pean, baina berdin Caracasen Miangolarrak argitaratu nahi izan zue-
nean. Protestak izan ziren eta eleberriak hamazazpi urte itxoin zuen.
Orain badaude gazte batzuk bi urteren buruan heuren eleberria argi-
taratuta ikusten ez dutelako haserretzen direnak. Hemen gatzelaniaz
eta euskaraz jadanik beste gisaz eleberri horrez azaldu nituenak
berrituko dizkitzuet.

1. Sortzearen eta argitaratzearen oztopoak

Jon Mirande eleberriaren idazten hasi zenean, berehala idatzi
zidan. Hona bere eskutitz batean diona, gipuzkeraz:

Parisen 1959ko otsaila lehenean,

- (...) Alpatu nizun ipuina bukatuxerik dut. Garbitan ipintzen ari naiz
orain eta amar bat egunen buruko eginik duket. Luze samarra da

«Alos Torrea»ren heinekoa gutxi gorabeera, eta gaia oso «be-zela»: maitasun kondaira bat, 30 urteko gizon baten eta 11 urteko nexka baten elkar maitatzea kontatzen duena, ots euskarazko «Lolita» bat (naiz ez dudan zoritxarrez V. Nabokov-en lanegi-ña irakurri aal izan)

Mitxelenari bi itz esan diot hortaz eta erantzun dit aldizkarian publikatzeko alegiñak egingo dituela. Bainan beldur naiz ezin dite-keela, zati zenbait aski erotiko baitira - naiz funtsez oso garbi eta sentimentala den. Beharbada liburu txiki antzean aterako dut, zentsurari iges egiten aal badio. Nai baduzu kopia bat bidaliko dizut, zure aburua jakin nal bainuke, formari eta funtsari buruz (ez naiz ausartzen Urrestarazuri erakustera).

Beste lan batzu egin gogo ditut hartarik landa. Irudimena berpliztu zait azkenekotz, eta idela asko badut. Bainan astia urri, bai eta ondikotz blotza ere; irakurle izpiritu zabal gelago balira oraindik! Bainan berriz ere gure erritarren konformismuak nazkaturik na-duka(..)

Mirande oroitzen zen nola apez batzuk bere olerki erotikoen argitaratzeko asmoa agertu zuenean gogorki mintzatu ziren, hala nola Chabagno, Lafitte, Mokoroa eta *Euzko-Deya* berak zer meha-txuak eduki zituen, Miranderen obrak alpatu zituelako; beraz eleberri horrekin bazekien arazo berdinak agertuko zirela.

Urte berean Aldjeriatik bidali nion eskutitz bati erantzunaz honela zion: Eskerrik aunitz zure eskutitzagatik; barka ez badizut lehen erantzun, bainan ene ipuinberria urrendu nahi nuen kopia bat zuri igortzekotz. Honekin batean, beraz, *Haur Besoetakoa*, badoakizu. Barka igortzen dizudan kopia ez bada oso irakur errexa bai eta irakurri ondoan eni atzera bidaltzekotz eskatzen badizut: beste bi baizik ez ditut, bat Igorriko diot Mitxelenari, baina beldur naiz ezin irar dezakela Gipuzkoan zentsuragatik eta beharko naizela saiatu nonbait publika eraztera; Amerikan, agian, Andimaren bitartez.

Zure aburua idazlantxo hortaz asko preziatuko dudala zihur izan zaite, batez ere hizkuntza eta formari buruz —eta zure oharrak kontuan hartuko ditut noski— zer edo zer aldatzekotz argitara erazi baino lehen, beharra baldin bada; funtsari buruz ere zure litzia pozik hartuko dut, jakiña, bainan hortan ez dut deus alda dezakedanik, istoria ankaraz-goratu gabe. Hanbat gaisto gure herri-

ko zintzo eta zuzenek ene bi protagonisten maitasun beregisakoa kondentatzen badute.(..)

Jon Mirandek eskatu bezala oharrak bidali nizkion, ilun gune batzuk argi zitzan, hasiera astunegi zela eta berriz Indar gehiagorekin idaz zezan. Lapurtar klasikoz erantzun zidan:

Zure oharrak khonduan hartuz Aur Besoetakoa berridatziko dut eta Andimari Igorriko deraukot, Mitxelenak ez badu publikatzen ahal.

Idazleak sumatzen zuen bezala *Egan*-en argitaratzeko ezezkoa eman zion Mitxelenak eta lapurtar klasikoz idazten dit:

«Mitxelenaren guthun bat hartu berri dut(..) goralphuak egiten derauzkit ene Ipuin berriagatik, baina ezin publikatu eraz dezakela borlabilki erraiten deraut.. bertzela «akabo aldizkaria». Andimari Igorri deraukot eia Amerikan argitaratzeko biderik hatzemanen duenik(..)

Caracasen euskal letren mezenas zen Minagolarra donostiar aberatsa bizi zen. Ustez eta hark argitalpena lagunduko zuen, jadanik Mirandek bere olerki hautatuak helarazi zizkion, baita bere eleberria ere. Eta ez dakizkigun arrazoi edo sasi-eraginengatik denak han lotan egon ziren. Salbatu Poemak X.Olarrak 1984ean ederki eman behar zituen, idazlearen hitzaurrearekin.

Bestalde nahiz ez zen politikan gogaide, adiskide zuen Arestik, idazlearen balmenarekin euskara batuan jarri eta Mirande bizi zegoe-no 1970ean eleberria publikatu zion *Haur Besoetakoa*. Venezuelan egon zen benetako lehen idazkera *Haur Besoetakoa*, Andolin Eguzkitzak aurkitu eta 1983an argitara eman zuen. Argitalpen asko izan ditu ondotik. Geronek haren irakurketari buruz bi hitzaldi eman genituen bata 1976an Deustuko unibertsitatean Alfontso Irigoyen zenak delturik euskaraz, eta Madriden, 1992an, Unedeko irakasleen aurrean, gaztelaniaz.

Haur besoetakoaren irakurketak

1. Irakurketa arrunta, bakuna eta errexa

Hau da galak lotsaturik egin ditekena. Lehen irakurketan argu-

mentua hau da: gizon baten eta haur baten ezin maitazea, neska itotzen delarik etelten dena, gero gizonak harengana joaiteko, bere burua itsasora botatzen duelarik. Tragedia bat erotismo sotil batekin eramana zintzoen eta fraide batzuen eskandalagarria (Ikus zer dion liburuaz L. Villasantek diona *Historia de la literatura vasca* delakoan).

2. Erotikazko irakurketa?

Deustun egindako hitzaldian hiztegiaren azterketa zehatza egin nuen eta hitz batzuen garrantzia azpimarratu.

Gorputza. Hitz hau berrogeita hamar aldiz irakurtzen da eta hau da erotikazko hitz nagusia. Eta bi gorputz mota deskribitzen zaigu, gizonarena dorpea, mozkorra, sutan Teresa neskarena minbera, ederra, malgua, biguina, zuria. Bretoieraz arimaz idatzia zen artikulu bat euskaraz jarri nuen Mirandez egin nuen lehen lan bilketarako 1977.ean, eta hor *Nire fedea* arimaren izenean ez dela gorputza ukatu behar dio Mirandek:

Aitzitik gorputza gure nortasun ezagutuaren oinarri bezala ezagutarazi behar da eta hortik «Die Hinterwelten» hots metafisikalarien mintzaldiengatik, gorputzari bere izatezko indarrak ohoratu behar dizkiogu, horiek baitira nahiz azalezko nahiz apaleko, erro sakon eta beharrezkoenak: erran nahi dut sexuaren ezagutza eta etnien kontzientzia. Gogoaren gainbegiagatik zentzu horien ukatzea ez lizateke engainu eta astakeria baizik zeren «aingerua egin nahi duenak, animala egin dezake. In *J. Miranderen Idazlan Hautatuak*, Txomin Peillenek prestatua, Gero, Bilbo, 1977.(104.or.)

Eta Haur besoetakoan horren oihartzunez zehaztu zuen:

Gorputza ez-bear bat omen; edo eragozpen bat —baina bai eta arimara daraman bide bat ere—Goizerriko mystikoeek erakutsi zioten araura. Ondikotz! Theresaren arima haren arima, haren aragia baino gaizkiago eta azalezkiago ezagutzen zuen oraindik. (Lib. alp, lehen arg. 105.or.)

Gorputz/arima dialektika horren lekukoa da ere zubereraz idatzitako olerki bat «Jei-gal» eta hartan emakume bati amodioa egitean esaten zaio «*Bi arimen müga dakigün jaur!*».

Arimaz. Arima alpatzea erotikan ez da hain bitxia. Hitz hori hamalau aldiz irakurtzen da, gehienetan gorputz hitzarekin lotua. Lotura horrek Miranderen sineste nagusi bat erakusten digu: gure idazlea izpirituzalea dela. Arimaz dio «*Itsaso berdea dela*», eta itsasoa heriotza da. Azkenean gizonak neskarekin arimaz bat egiteko itsasoan itotzea bide bakarra du; baina ikus dezagun, ez baitut nik hortaz besterik idatziko, *Nire Fedea* saiakeran idatzi zuena:

Ariman sinesten dut —bere izen arrunta eman behar baitzailo—: erran nahi dut izaki bakoitzean alderdi psikiko bat badagoela; konbentzitia nago eta materiazaileek diotenez bestalde psukhé hori ez dela ekalaren gain-fenomeno bat abere eta gizakentearentzat, baina aitzitik fisika-kimika aldaketek oso bestelakoa, bere izate barnatsu eta sakonenean. (Op.cit. 104.)

Horregatik nahiz gorputza gauza iragankor eta bigarren mallako den, Arimari berdinduz nahi bada, sineslari batzuek dagiten bezala ez da mespretxatu behar hiltzera behartua baldin bada, arima beste hein batera iragaiten delarik. (Op.cit. 105.or.)

Gorputz harremanak. Laztan hitza berrogei aldiz, musu 5 aldiz, besoetan hartu 3 aldiz, hartu zuen behin. Azken harreman bakar hau sinbolikoa dela diolarik. Beste hitzik ez, beraz, Bernat Etxepare baino gutxiago .

Sendimenduak. Hiztegi osoan erabiliena bihotz, 62 aldiz, mailtasun hitzaren lekua hartzen duelarik, Mirandek olerki batean idatzi baitzuen «*Maitasun hitz higatu hori*».

Sendimendu baikorrak. Zoratu hitza erabiliena 29 aldiz eta batik bat gizonak neska laztantzen duenean, gero eskeron 15 aldiz, eztitasun 12 aldiz.

Sendimendu ezezkorrak. Lasterregi irakurtzen denean eta «happy-end»-ik ez duelakoan eleberri hitsa dela idazten da, baina liburuan zehar hiztegiak besterik salatzen du:

golbel: 11 aldiz

alal: 16 aldiz

negar: 6 aldiz

irrifarre: 26 aldiz

ahalge: 3 aldiz

pozik: 8 aldiz

pena: behin

irri: 15 aldiz

3. Herri min, gako nagusi bat

Herriminaren sinboloa neska dugu. Neska Euskaldungoa, badu 11 urte 34 urte dituen Mirandek euskaraz idazten duela eta Euskal Herriaz Parisetik amesten. Nahiz liburu horretan lagun bati gertatua kontatzen duen, Irakurri nahi duenari lau aldiz irakurketa gakoak ematen dizkigu:

Theresari begira zegoelarik bere errimiñaren jaloterri hura zekusan barruko begiekin. (Haur besoetakoa 3. 37.or.)

Bai Euskal Herria bilakatu da neska hori eta berriro urrutixeago errepikatzen du:

eta orain sumatzen asi zen gorputz eder hori bere edertasun mozkgarriagatik, synbol bat baizik ez zela, haren blotz urduria errimiñez jotzen zuen zerbaiten symbola. (Op.cit. 45.or.)

ogel eta amasel ordubete haren gorputxoak ikusi gaberik zegoela eta errimiñaren antzora siztutzen zion blotza gabetasun horrek. (Op.cit. 55.or.)

(..) eta haren itsasoaren beteak izuz eta errimiñez batera jotzen zuen aita besoetakoa. (Op.cit.111.or.)

Liburu horren sinboloa argi da. Mirandek abertzale ametsak, fazista ametsak eta idazle ametsak suntzitzen ikusi zituen eta psikiatrari esan zion bezala bere bizitzeko arrazoi bakarra idaztea zen, eta urte haletan ezin argitaratuz euskal liteaturak izan duen idazle mada-rikatu bakarra izanki ez zuen beste irtenbiderik liburuiko gizona bezala bere herriminaren itotzea baizik eta bere buruaz beste egitea. Urte haletan ez zuen erdietsi bere burua hiltzea, baina 1972.ean bai, baina ez itsasoan.

4. Kultura irakurketa

Neskari erakutsi nahi dion kultura Mirandentzat Euskal Herria-
rentzat amestu duena da. amets zabala, munduko kultura guztiei
irekia. Zaitegik, Ibiñagabeitiak, Krutwigek bezala Mirandek galdu hu-
manitateen nostalgia zeukan. Frantses irakaskuntza modernoaren
aurka mintzatzen da, Theresa errepublikako eskolatik behin betirako

ateratzen duenean. Miranderen Euskal Herriarenganako kultura egi-
tasmoa aspaldikoa zen, jadanik Loustau-Daudine euskaldunari idatzia
zion 1948an:

Nik maite dut neure herria Angles edo Frantses batek berea
maite duen bezala. Euskal herriko dantza ta abesti herrikoiak
laket zalzkit, naski; eusko edestia ikasten ari naiz; bainan geroari
beha bizi behar genukela deritzait. Nere ametsa hauxe da: egun
batez Euzkadl izan dadien ludiko herrialde argituenetarik bat
-lphar-Europako erresuma ttipi zenbait diren bezala- Gogoan ditut
Holanda, Dinamarka, Finlandia. (In *Txomin Peilleneren Euskaltzain-
dia sartzea* Euskera, Bilbo 1989,2 34zbk. 429-486 or.)

«Kultura eta folklorea» artikuluan honela dio:

Naski gure kiroletan edertasun, jaukaltasunik bada; berdin
dantzetan eta gure bertsolarien kopletan humore. Baina euskal-
dun kultura hortara mugatzea, edo kulturaldetik garrantzi berezia
daukala sinestea, frantses kulturak (Bécaud)-en kantetan duela
bihotza eta amerikar kulturak Base-Ballean erraitea lizateke.

(..) Nahikoa da eta aski begien irikitzea ikasteko nola gurea bre-
zain apala den egoeran bizi ondoren, azken ehun urteotan herri
batzuek beren etnia-nortasunaren errespetua irabazi duten, izan
dadin politika jabetasunarekin edo gabe, beren ohiko dantza eta
kanten alde lan egiteaz oso bestelako bideetatik, hala nola Fintar,
Flamandar, Galestar.. (J.M. Larrea, *Miranderen lan kritikoak*, Pa-
miela, Iruinea, 1985, 82-83.or.)

Kulturaren herrialde ereduak.

Hegoalde eta Iparralde Europa.

Nai zuen Theresa berarekin eroan atzerriko lurralde urruti, ha-
rentzat berri eta ezagun gaberik izango zen, batera; Egoaldeko
erri eguzkitsu eta koloredun batera? Eta jadanik aurra bazekusan
berarekin itsasoko ur epeletan igerika, edo aitzinateko uriak eta
erriak ikuskatzen zituztelarik, musaloetan eta arri zaarren artean
Theresa serioa, orotzapen eta antze lanei begira, hark ematen
zizkion azalpenei beha..

Ala ametsaren iratzarzalle den Iparralderantz ziran ote joango,
beren urratsak oian sakonetan barrura ezkutatzera, edota itsas-

nesken dantza-leku izandako arkaitzetan eserita, ugliñen eta beren blotzen musika uzuari entzutera?

Goizerria edo Ekialdea?

Garai haletan Mahabaratako Ipuin bat eman nuen euskaraz, Krutwig eta Mirande Ekialdeko filosofien iralkurtzen zebiltzan, batez ere budismoa. Nirekin Jonek Indietan gertatuko zen eleberria idatzi nahi zuen. Mirandek bere *Nere fedean* aitortzen du: «*Goizerriko mystikoeak erakutsi zioten araura*»

Halaz ere gaineratzen du: «*Ez dut erran nahi hala ere, metenpsikosian sinesten dudala*».

Sartaldea edo mendebaldea

Hau da bitxiarena eta hurrengo gaiarekin lotua. Itsasaldeko haizea baita heriotzaren deia eta heriotzaren ondotik beste mundurako bidia, lehen orrialdetako ekaitzarekin dakusaguna.

«*Sartaldetik zetorren aizeak*» eta hil ondoko Tir Na Nóc, Gazteen Lurra alde horretan dago eta geroago gehiago iruzkinduko dugu.

5. Mitologia irakurketa

Miranderen liburuan ez da Euskal Herria benetan agertzen, non ez den neska hori, baina mitologia ere Keltena da, arimaren sinestearekin lotua eta batik bat *Tir Na Nóc* «Gazteen Lurra» nolakoa den, zertarako den idazten du:

...han (Gazteen Lurrean) igurikitzen baitzuen aurrak, bere gorputz eta arima berriz betegiñen eskeintza harri egitera gerturik. (Op.cit. 119. or.).

Liburuan zehar Herloaren uharte horiek zazpi aldiz alpatzen zaizkigu (35.37.38.108.116.119.or.)

Bazirudlan ontzi-irudi heletan emanaz, urrutira eramango zutela, beti urrutirago amets orok loratze eta betegintzarre duen ugarte doatsuetaraino. (Op.cit. 35.or.)

(..) Gizonak, Theresari begira zegoelarik, bere amets ezin esanezkoari egoak aske uzten zizkion Sartaldeko ugarte doatsu hale-

taraino eraman zezan, *Gazteen Lur* ezkutatu hartaraino. (Op.cit. 37.or.)

Heriotza gabeko uharteez esaten zaigu:

...erritarren artetik hark bakarrik ote zuen sekula antsiatu ta ikusi, itsasoaz bestaldean, eriotza gabeko *Gazteen Lurra* kristalezko abardun sagarrondoaz estalia zen hura? (Op.cit. 38.or.)

Theresari *Gazteen Lurra* aurkezten dio

Theresak zoraturik entzuten zituen aita besoetakoaren blotz irudi-mendunak asmatzen zekien ipuin ederrok...urrutiko Amerika baino urrutiago, Indianoen lur urretsuak baino urrezkoago diren ugarte doatsuak, ordez ez zizkion oraindik alpatzen, han arimaren sorterrri den *Gazteen Lur* mirarizko hartan, baitzatekean Theresa printzesa eta agintari zor zitzaion araura... (Op.cit. 83.or.)

Gazteen lur hori ez da paradisuia, paganoena da, druidena, Tir Na Nóc da:

ene Jainko zaarren aldareak zutik ballira oraindik, ez nuke beldurrikan aspaldian joana nintzateke Theresarekin batean galztoek eta txarrek aaztu erazi, gezurtatu nai diguten *Gazteen lur* irrikatu hartara. (Op.cit. 108.or.)

Theresa neska itorik hiltzen denean:

...uraren oldarrak engoiti bazeraman hainbat gutiziatu zuen zabalerrantz *Gazteen Lur* hainbeste amestu hartaraino. (Op.cit. 116.or.)

Gizonak bere burua itsasora bota duenean:

Aldi hartan ez zuten gizonaren gorputza arkitu, Theresa ito zen gunean luzaz billaturik ere. Ergelak! engoiti urrutira bazeraman Theresa eraman zuen ugin gora hark berak...urrutira deien elmenaz bestaldera, heien minduraz bestaldean dagoen *Gazteen Lurrrera*, han, undiña eta itsas-nesken artean, igurikitzen baitzuen aurrak, bere gorputz eta arima bategiñen eskeintza harli egitera gerturik. (Op.cit. 119.or.)

6. Itsasoaren gaia

Noski *Gazteen Lur* ametsarekin lotua dator. Liburuan lehen le-
erroan agertzen da:

Sartaldetik zetorren alzeak itsasoko oiarzunen ekarle, makur
erazten zituen parkeko zualtz illunak, sala leioaren aurrean: Intziri-
ka ari ziran eta Inarosten ziran ontzi mastak izan ballirakean
ekaltz baten jostagaillu. (Op.cit. 35.or.)

Itsasoa ezti eta hasarrekor:

Gizonak kontatzen zion Theresari Itsaso ezti eta hasarrekor horren
epopeia, ezagutarazten zizkion lehenagoko Itsasketak, heien odo-
leko ziren mariñel zangarrak beste mundu bateraino eraman zi-
tuztenak. (Op.cit. 83.or.)

Itsasoa garbitzaille:

Ikus, Theresa, Itsaso malteak Isabelaren zikinkerietatik garbitzen
naul. (84. or.)

Itsasoan sartu ziran eta ugiñek bertan garbitu zituzten bekatu
guztietatik. (Op.cit. 113. or.)

Itsasoa herri-minarekin etaTheresarekin lotuz

...heien oinetaraino atseden artzera zetorren itsaso bortitz eta ezti
bazterrik eta ondorik gabeko hartan; eta haren beteak izuz eta
errimiñez batera jotzen zuen aita besoetakoa, bainan Theresa
aurrera zihoan lehena. (Op.cit. 111or.).

Itsasoko Jainkoa,Kelten Manannan Mac Lír da eta bizitzaren patua:

esmeraltargiz eta zillar zurizkoz apainduak, Itsas-jainko aundi ba-
ten beztimendu izanik ziran ausaz hain eder heien oinetara zeto-
zen ugin gorak. (Op.cit. 83.or.).

...Itsasoko jainko onak bizia barkatu bazlon Theresari, segurki
helduko zen itsas bazter salbagarri hartara(..) bai eta ugiñ eskerga
batek itsasoko jainkoak lgorri izan ballo bezala, jo eta uzkailli
zuenean ere. (Op.cit. 115.or.).

Margolariak —alegia idazleak— ito diren biengatik jainko hari bere
eraztuna eskaintzen dio:

eta beingoan, uretara jaurti zuen eskuinean zekarren urrezko zaldun-eraztun bat, itsasoko Jainkoari oberenda. Ez zen ankerra izan biontzat. (Op.cit.120.or.)

7. Jon Mirande eta emakumeak

Eleberrian Jon Mirande misogino agertzen bada, misantropoa ere; ezen gorroto dituenak burges zintzo itxurazkoak eta haien murrainak dira.

Isabela andregaiaz dio:

Ezin zitekela neska apain dotore, adimen uts eta modari jarraitzaille harekin bizl izan. (Op.cit. 58.or.)

Lehengusu gizona ez da hobeki erakutsia:

Urde zikintsua, burges txiki estu zikiña. (Op.cit. 92.or.)

Eta aurrean zeukan bertutearen zalduna, gizon bear bezalakoa, ezdeus, gatzil hori, estalika mintzo zen hypokrita hori. Ez al zekien egiazki nolakoa zen? Ez aal zuen haren gogo eta biotz-txikikeriaren berri, bere bizl guztian egin, egiten eta egingo zituen txikikeriaren berri? Lapurra, salerosketari zen aldetik; gezurtia gizarteko gizon bat izaki; satsua lehenago ohaldetzat zituen emakumeekin. (Op.cit.93.or.)

Gero Gizona, beste izenik gabe agertzen dena ez da ederretsia, mozkorkeriaz bere azpijoko, koldarkeriak eta ahuleziak estaltzen ditu. Margolaria ere, hots idazlea, azken lerrotan koldarra dela esaten zaigu. Theresa neska txikia da ederrenik eta garbienik agertzen dena, amets bat bezain ederra.

Ez dizkitzuet Irakurketaren gako guztiak eman baina literatura lanegin baten balioa Irakurketa ugarien izatetik dator. Miranderen (*H)aur besoetakoa* ez da fraideak esan zuen bezala ximplekeria eta landugabekoa. Eleberri honek izan duen zoritxarrik handiena gaztelaniazko itzulpena izan da, hitzaurreak ez duelako ezer ikusteko eleberriarekin, hirugarren pertsonan idatzia lehenean jarri balta, Miranderen aitopena balitz bezala, azkenik hitzak baserriarrek ematen dizkieten adieraziekin itzullak dira batzuetan, Mirandek eta eleberria baserriarekin ezer ikusteko ez dutelarik. Beraz, artamenda edo go-

menda genezake 3. argitalpena Andolin Eguzkitzak paratua *Haur Besoetakoa* 1983an, baita *Haur Besoetakoa* Arestiren eraginez 1970.ean bigarren testuarekin egin zen lehena.

Jon Mirande itzultzaile

Haserre garai haletan denetarik egin behar zen eta Mirande ez zen mugatu olerki egitera bertso bakunak, abertzale himno batzuk ere idatzi zituen hala nola *Jeiki Jeiki*, *Lenago bizi zan Euskadi askatasunean*, *Ortziren zaldunen gudu kanta batzu aranista* kutsuz. Egin zuen testu pollitena *Uztailaren hamalau*eko panfletoa frantses Fiesta Nazionalaz izan zen, Forel mauletarra gidari eta bi Peillen anal aberztaleok automobilez ibiliz Zuberoan 300 aleetan banatu genuen. Hementxe daukazue original bat plastikoaren pean.

Ingeleratik eta frantsesetik ere kantauak itzuli zituen, euskarak kantu berrien modernotasunean sartu behar zuelako. Préverten *Les feuilles Mortes*, eta Sartren *Dans la rue des Blancs Manteaux*, Stan Jonesen Unai zar bat eta beste batzu 1950 urte haletan idatzi zituen; ez zuen nahi izan bere poemen artea argitara zitezen. Berea da ingeles musika batekin egin zuen *Ene Maite Kattalin*. Miranderen ipuin eta poemak bizirik diraute kantarien eta Rock talde batzuen ahoetan.

Nazionalistak, Mirande, Ibiñagabeitia eta euskara

Egia esan euskal idazle izaten jarraitu dugu Ibiñagabeitia paregabeak bultzaturik; zoritxarrez Venezuelara joan zen 53.ean, baina handik ere akulatu gintuen, beste hamalau urtez, nahiz berak etsipen aldi handiak eduki, hala nola idatzi zidan gaur ere irakasbide behar genukeena. Bere gutuna 1957.eko bagilaren 25ekoa da:

Txomin, egia esan aspaldi ontan antzu nabilkizu euskal alorrean; ez dut ia ezertxo ere ondu, eta lotsagarria da au benetan, ni bezalako euskaltzale batentzat, besteak euskal idazketara zirikatzen ibili naizen onentzat. Eta zeri dagokio ene antzualdi au? Ondo dakizunez, Txomin, idazleak ere akullua bear du eta emen ez daukagu iñolako akullurik idazleok. Ez dut lurralde au bañon elkorragorrik ikusi idazlanerako, euskarazkorako batez ere. Emen-

go eusko ospatuak ez dira begiko zakarraz baiño gelago arduratzen, gure izkeraz.

Bost axola emengori euskaragatik. Eta orrexek ematen dit, neri beintzat, miñik aundiena. Eta abertzaleak omen dira..Zer nolako abertzaletasuna da ori geure geurea dan izkerari kasurik ere egiten ez diona? Gaiñez eginda nauka zorioneko abertzaletasun ergel orrek, gure izate guztia erdel uiolean ondatzen ari zaigun nazionalismu zitel orrek. Ez dut nai ario ortako abertzaletasunik.

Lotsaz gorrituko ziñake, Txomin, emengo eusko-etxeara igande batez urbilduko baziñake. lentesz beterik, maitxo guziak iokolariz, edalez eta esalez gaiñezka; eta danak erdaraz, gazteleraz barra-barra. Ezta Gaztela etxea balitz ere. Eta orrek niri, naska ematen dit, izugarritzko naska eman ere. Eta orretxegatik ez naiz urbildu ere egiten etxe artara ezinbertzean baizik. Badira ia iru illabete etxe artako solairurik, ene oiñez hikutu ez dudala. Naiago dut bakarrean nire etxe barnean ari, ez ango abertzale ergelen artean erdaraz jardun. Zarrak eta gazteak, danak berdinak. Emen sortutako gaztedia ta bei-gorotza berdiñ-berdiñak. Okerrago oraindik gorotzak ballo du zerbaitetarako, ongarriztat baño ezpadare, eta ez da gutxi. Emengo gaztediak aldiz, ezertarako ere ez du ballo zimaurtarako ere ez.. Eta au benetan da deitoragarria. Esan bearrrik ez, giltzetatik ateratako ezur bat bezalaxe nagoela emen, beti nire zuloan noiz sartuko naizen zal..Nun da gure Europa ederra? Ez dago lurralde ori bezalakorik mundu zabalean. Alper dukete esan Ameriketak, Ameriketak! Naiago dut mila bider gure Europa zaharra bere aje ta eritasun guziekin. Bada oraindik mundu ontan dirua baiño garaiago dan zerbait, Ispiritua alegia... Eta emen gain-di ez duzu orko Ispiriturik arkituko, eta dirua ere nekez...

Aia ere etsituta zakust Txomin, orko abertzaleekin. Eta etsitzekoa da izan ere... euskaraz baiño ezin ulertuzko frantses parregarri batean beren konperentziak eman naiago dituzten ergeloriekin..Noiz ikasiko ote dugu geure jabetasuna bear bezala guzien aitzinean erakusten, Itsuskeria ta berokerietan ibiltzeke?

Polita lokoa egin diezuna Txomin, zeure euskal itzaldi orrekin. Ar itzazu ene zorionik kartsuenak eta iarraik aurrerantzean ere bide ortatik..Ikus dezatela gure izkera ere zerbaiterako badala, eta oitu ditezela euskara entzutera.

Andima Ibiñagabeitiak aipatzen duen gertaera hori izan zen. *Euskalzaleen Biltzarrako* hitzaldiak bost urtez frantses hutsean izan zirela eta nik izenburua euskaraz Ipiñi eta hiltzaldia euskaraz eman nuen.

Begirunez galdetu nien nork ez zuen euskara ulertzen. Denek zekiten. Gure jokabide horrek euskaldunei euskaraz hitz egitea Zaltegi, Ibiñagabeitia, Miranderena, euskararen fanatiko etiketa ekarri zizgun. Besteak arrotz erdararen fanatikoak ziren. Euskararen normaltasun hori ez da oraindik Iparraldeko euskal irakasle zaharren gustuko beren artean beti frantsesez ari direlako.

Bai hizkuntza ez da neutroa Francopéan euskaldunei euskaraz, eta beren obrak euskaraz ematen etenik gabe jarraitu dutenen artean, gai horretaz asko idatzi duena *Txillardegia* izan da. Kontatu zigun nola Orixe zaharra bisitatzera joan eta bi orduz euskaraz hitz egin ziola eta euskal idazle ospetsuak bi orduz gaztelaniaz erantzun. Ez aipa nazionalistak. Oraindik gaizkiago dabilta. Publikoan hitzaldi bat edo beste Itxura emateko eta beren artean beti frantsesez politikaz hitz egiten. Frantsesez irakurtzen, baita konturatu gabe Pariseko prentsa «zuzenak» banatu alegiazko idela «progresistek» kutsatzen gaituzte.

Egia da Pariseko literatura eskolatxo horretan eta gure garako tertulietan ez genuela Txillardegia ikusi, Parisera geroago etorri baitzen. Behin salatu nintzen haren ikusten eta Saint Placide ostatuan ordu bi itxoin ondoren, ez zen azaldu. Antzinako donostiarren formaltasun eza gorde zuen. Halere niretzat behintzat haren jokabidea gustatu zitzaidan eta haren salakerak ballagarri izan nire desertuko idazle arazo batzuen konpontzeko.

Aldizkarien gorabeherak

Euzko Gogoia Biarritzera 1956. urtean aldatu zenean, Zaltegi sekulako arazoak izan zituen Iparraldean eta nahi zuenaren argitaratzeko askatasuna galdu zuen: hain zuzen garako Miranderen olerkiak, Arestirenak eta nire artikuluak ezin zituen publikatu. Aldizkaria gehienbat heraldikaz eta Salaberri apezaren arkeorrualista antzerki inozoaz bete zen.

Eta hamarkadaren bigarren zatian *Egan* hegaz ongi ibili zenean

Mirandek eta biok olerki egitea apur bat bazterturik Ipuin idazten hasi ginen. Miranderen Ipuinak fantastiko edo polizia kutsukoak ziren; gainera olerki gutiago egiten zuen Mirandek, Ipuin idaztera eman ginen gure eleberririk lotan utziz Mirandek zion bezala «ispiritu irekiko irakurleen zal».

Idazten genituen ipuinak

Idazten nituen ipuinak ordea bestelako ziren: izan nuen kezka handiena izan zen haurrentzat eta gazteentzat ez zela Ipuinik idazten eta hortara eman nintzen. Nire lehen bi Ipuinak zubereraz haurrentzat eginak ziren, gero ere asko idatzi nuen haur eta gazteentzat hamarbat narrazio argitaratu ziren hamarkada hartan aldizkarietan ezker eta eskuin; hauekin eta argitara gabekin *Hor Dago* argitaletxeak hogeita bost urteren buruan 1982.ean hiru haur eta gazte Ipuin liburu argitaratu zizkidaten.

Helduentzako narrazioak garai hartakoak nituen, hala nola 1960.ean idatzia Aljeriako gerraz eta hangotarren kulturaz idatzia zatika aldizkarietan erdi emana Aljeiria askatuta. Beste Ipuin liburu batean Altxorra eta Altximia bilduman orduko misteriozko narrazio batzu eman nituen. Denak 1982.ean hogeitaz urteren buruan argitaratu ziren Parisen zeuden hegoaldeko eta Iparraldeko ikasleek nire aldeko protesta bat izenpetu ondoren.

Gu, erbestean bizi eta gure eleberririk eta Ipuinen gaiak ez ziren baserri mundukoak edo Euskal Herrikoak. Horrek ez du erran nahi bi Iturri horietarik ez genuela edaten. Izan gintezen Mirande edo Peillen gure euskaltzaletasunaren berotzeko ez genuen batere harremanik Iparraldeko orduko literario folkloriko erromantikoekin. Indarren birskuratze biek gure oporrak honela banatzen genituen: erdia Zuberoko benetako euskaldun artean, (eta ez frantsesez hitz egiten zuten Iparraldeko euskaltzale horien artean) gero hizkuntza bainua hartu ondoren, kultura garra Donostian edo Bilbon biltzen genuen.

Ibinagabeitia Joan eta akulatzaileak hegoaldean genituen Irigarai eta Mitxelena, Etxaide eta San Martin. Neronek orduan lanak *Eganen* eman nituen. Iparraldean gehiena frantsesez zen. Gure Herrian behin idatzi nuen euskaraz; aldizkari erdalzale horretan Iratzederren poe-

mak ematen zituzten, orduko desertu eta iparraldetarren astakerien artean, argi irakurgarri bakarra.

Hizkuntza. Zer euskara erabili genuen. Mirandek gutienik lau zuberera, gipuzkera osatua, lapurtar klasikoa eta euskara batu itxura zeukan zerbait. Bere hasieran nahikoa garbizalea zen, Ibiñagabeltia ere bai ni ez. Halatan ere ez nintzen euskañolez idazten hasi.

Ez nituen horretan segitu eta batik bat aranismo gehienak baztertu nituen. Mitxelenaren eskolakoa nintzen euskararen barruko ontasunak erabili behar zirela, asmatu gabe, baina nire gipuzkera osatua beti lapurteraz nahasi nuen, eta grafian uste dut lehena izan nintzela laster koiné hortan «h» batzu erabili nituena.

Congreso Mundiala

Lehenbiziko *Congreso Mundial Vasco* 1956.ean Parisen egin zenean Mirande eta biok gonbidatu gintuzten. Mirande ez zen joan esanez, ezkerreko ala eskuineko izan, espainolak gure etsalak zirela eta haien buruen ez ikusteko ez zela joango.

Joan nintzen. Hitz egin nuen. Goizean Andoni Urrestarazu Umandi ospetsuak gaztelaniaz, bi orduz hitz eginaz, euskal kultura zer beharko zen izan hitz egin zuen. Arratsaldean ni nintzen lehen hizlari. Hamar minutuz hitz egin nuen. Hitzalditxo hura galdu nuen, baina ez dakit nondik, Pako Sudupe euskaltzaleak haren laburpen gisako bat aurkitu dit.

Eta zer nion: Bat, Parisen ez zegoela Francorik eta ez nuela ulertzen zelan abertzaleek ez zuten ikastolarik sortu (txaloak eduki nituen, salaren hondotik, nonbait hor zegoen Elbira Zipitria donostiar andereñoa eta beste batzuegandik). Garai berean esan nien eusko abertzale prentsan euskarak leku gehiago behar zukeela eta hartarako irakurleak alfabetatu.

Gero esan nien euskal zinegile Gotzon Elorza lagundu behar zela irudietan ere euskarak sartu behar zuelako. Azkenik, euskarak Jakintza munduaz jabetu behar zela. Bukatzean Jokin Zaitegi ezagutu nuen baita Beñat Posompes euskaltzale, antifrankista eta Sorbonako Biologia irakaslea ere. Eztabaida izan genuen Jakintzaren hiztegiari buruz, ezen Zaitegik uste zuen dena euskal iturritik sortu behar zela eta guk erdizka ibili behar genuela. Orduan ezagutu nituen Karmele

Errotaetxe, Bittor Kapanaga eta andana bat lagun. Egun haietan idatzi nuen *Itxaropena* olerki etsitua, inoiz argitaratu ez dena. Bai apur bat etsituak ginen, Agirrek zionean «datorren urtean Aberri Eguna Bilbon ospatuko dugu» eta ez genuen uste Francoren desagertzeak euskararen pizkunde bizi bat ekarriko zuenik, erbesteko abertzaleen erdalzaletasuna argi eta garbi zelako.

Mirande, filosofia eta saiakera

Miranderi jakintza hiztegiari buruzko kezka hori azaldu nion, eta erantzun zidan filosofia idazteko ez bazuen euskaraz gaitasunik idorutzen gure hizkuntzan idazteak ez zukeela balio Orduan saiakera idazten hasi zen, bat *Parapsikologi*az, bestea *Keltiar hizkuntzei buruz*.

Nietchezalea zen Mirande eta aleman hura orduko Lafitte, Morroa eta beste filosofo hori apezentzat deabrua zen. Mirandek filosofia saiakera bat idatzi zuen «*Gizagaindikoa Nietzschen obran*» Laburpen bat igorri zion Andimari Caracaseira, Patri Urkizuk Estibalizko artxiboan aurkitu duena. Baina irakurri nuen 120 bat orrialdetako saiakera ederra itzuli nion. Esan zidan ezin argitaratuz desegin zuela. Gai honetaz hitz egiteko Joxe Azurmendi egokiago litzateke, berak idatzi liburuak baitio: *Nietzsche, Spengler, Schopenhauer Jon Miranderen pentsamenduan*.

Halere, apur batean Mirandek jarraitu zuen idazten, baina 1961.ean euskaldungoaren uzteko gogoia zuelarik *Igela euskaldun heterodoxoen errebista* aldizkaria sortu nuen zentsurari ihes egiteko hartan idaz zezan. Eskandalu hutsa izan zen. 35 harpidedunekin eduki genituen eta euli gabez *Igela* hil. Geroztik anfibio berde horren errua bizkarretik daramat (bost kontrako Euskaltzaindian aukeratu nindutenean). Pentsa jeltzaleen eta euskaldun zintzoen karikatura egiten ibilli ginen eta erotikazko gai batzuk argitaratu!

Vasconia eta Krutwig

Garai haietan Frederik Krutwig bigarren hamarkadan Parisen agertu zen, aski kementsua izan zelako euskara eta euskal kulturari Francok egiten zion kaltea, jende aurrean salatu baitzuen. Eta hark

euskarazko lan bakan batzuen artean –Vasconia Idatzi. Gure tertuletan sartu zen baita lagun egin zen Raude bretoi abertzalearekin ere, zeinak bretoi abertzaletasuna ikertu zuen. Rauderen arrebarekin adiskide min egin zen eta orduan sortu zitzaion *Vasconiaren* Ideia. Rauderen idazkiak eta Miranderen Ideiak gaztelaniaz ipini zituen, hala nola Jon Mirandek *Gernika* aldizkarian idatzitako hiru artikulu kritikoak erabili; gero eskatu zizkidan nire kongresu oharra eta *Congreso Mundial Vasco*tik bildu nituen dokumentu guztiak: ez zizkidan itzuli.

Tartean Hervé Glemarec bretoiak Europako guttiengoel buruz egin mapa eta liburuxka (*L'Europe des Ethnies*, Parisen 1955) gaztelaniaz jarri zuen, berak marxismoaren ideologia sartu. Mirandek inprimategia aurkitu. Gero Krutwig eskergabea bizi guztia Miranderen gaizki esaten ibiliko da. Hau da gure garaiko idazleen arteko itzal beltzetatik bat.

Krutwig garai batean Baionan egon zen Villasanteren Euskaltzaindian sartzean. Kementsuki esan zituenak kontutan harturik, esan zioten hobe zuela Francopetik joatea; baina Baionan ere, gure etsairik handienak guretarra direlako, politika nahaszale bezala salatu zuen euskaldun kanoniko batek poliziarri eta Euskal Herritik urrundu behar izan zuen Belgikara. *Vasconia* liburuarekin. ETaren sortzailea bezala dela diote, berak niri Euskaltzaindian esana lekukoen aretean, «Ni ETA nire seme pontekoa bada Txillardegik odolezko semea du; nekezago zailo arnegatzea» Egia da Krutwig aitaren sosarekin lasai bizi zitekeela orduko Bilbon baina ez zen hain gaizki enplegatua aitaren diru hori, buruan zerbait zeukan eta nahiz bide bitxiak hartu, agian beranduegi iritxi zen oldea, hala nola Mirandek eta Arestirekin euskaldunak ederki astinduz hiperhelenismo eta hiper lapurtarismoarekin.

Beharbada haren ekarpen handiena izan zen, abertzaletasunaren inarrotea, harrotzea eta bestalde Euskaltzaindiaren lan tresna zen gaztelaniaren orde euskara idatzilaren sartzea; hori bere buruaren kontra bera errazago eta nahiago zen gaztelaniaz mintzatu; halaber uste dut Mirandek *Gernika* aldizkarian eskaini eta ETAK obratu euskarazko Kultura Frentearen oinarriak *Vasconian* daudela ongi aztertuak.

Konpilazioa den *Vasconia* Mirandek aurkitu inprimategian 1963an egin zen; horretan beste ekarpen nagusia marxismoaren ideiak sartzea izan zen, nahiz duela zortzi urte esan zidan Ideologia

horrek ez zuela ezertarako balio. Gaineratu zuen ere Mirandek sekular izan ez zuen herri xehearen mespreztua. Miranderengandik hartu zituen idela nagusiak, elitismoarena eta arrazismoa: bere azken urteetan Krutwigek idatziz azalduko dituenak, jende beltzel pentsatzeko gaitasuna ere ukatuz. Hau kontatu baino lehen kritikiko zorrotzek hala nola Beltzak ezagutu zuen Miranderen eragin hori, baina beste eragin hobeak ikusi eta bizitu ditut.

Ereduak?

Zer ziren gure irakurgaiak? Mirandek asko irakurri zuen, eta ezagutzen zituen hamabi hizkuntzetatik, batzuetan Itzulpentxoak egin. Aleman eta Ipar amerikar prosa eta filosofia, baina Ingeles metrika zituen eredu. Espainoletan Lorca, Machado eta Huidobro.

Egia da prakadun lagunen lanak ez bagenitu izan erlijiozko idazkiak nagusi zirela eta niretzat zenbat nahi euskara ona izan Orixeren ideiak beste mundukoak zitzaizkidan eta jarraitzen dute izaten. Gure hasieretan euskal eleberrri eredurik zer geneukan? 1948an Buenos Airesen publikatu Elizagirreren Ekaitzpean, manikeoan eta gerra aurreko sasi erromantizismoaren azken fruitua, Gustatuago zitzaizkidan Irazustaren bi eleberrriak, *Joanixio* 1946koa eta *Bizia garratza da* 1950ekoa; gero hutsune bat izan zen.

Telesforo Monzonen liburuak oso berandu arte ez nituen ezagutu *Urrundik* 1965.ean erosi eta irakurri nuen: bazuen hogei urte argitaratua zela. Ez zuen gure artean, Parisen, eraginik izan. Halere ezin onartu dezaket kritikiko gazte batzuentzat euskal literatura duela hogei urte hasi balitz bezala idaztea Atxaga izan dela lehena politika euskal narratiban sartu duena. Nire aurretik eta nik gerra zibilaz *Itzal Gorria* 1972an argitaratu baino lehen, Martin Ugaldek, Telesforo Montzonek eta Toribio Etxebarriak gai horietaz idatzi zuten.

Esan dezaket garai haietan sekulako eta betirako adiskidantzak genituela politika idelen gaineratik. Mirande borroka armatuaren eta nazismoaren alde zen, Etxaide eta Ibiñagabeitia, abertzale eta demo kristau, Aresti ezkertiar eta euskaltzale amorratua, Mitxelena errepublikatar abertzale agnostikoa, Krutwig garai haietan marxista eta ateo, ni aldiz ateo eta indarkeriaren kontrako gandizale abertzalea: euskarak eta elkarren arteko errespetuak lotu gintuen. Hamarkada

hartako barneko giro goxoa eta kanpoko giro latza ez zaizkit ahaztuko.

Gaur ere euskarazko euskal kultura batetan sinesten dut. Euskal idazleen elkartean, hegoaldean giro ona aurkitzen dudalako, euskaltzale gazteak euskaraz ari direlako, idazten jarraitzen dut eta bisitu balitz Mirandek orain 73 urteak zitukeen eta beharbada horretaz poztuko zen.

Hamarkadaren azkenean Gabriel Aresti

Gabriel Aresti San Martinen bidez 56an ezagutu nuen eta harekin gutun idazten hasi. Behin 1959an Aldjeriako gerran Gurutze Gorriarekin nenbilela, igorri nizkion gaztelaniaz idatzitako lau olerki eta erantzun zidan berebiziko gutun luzeena gaztelaniaz idatziz. Zati handiak euskaraz itzulliko dizkitzuet eta honela dio:

Bilbao 3 de febrero de 1959, 4 y media de la tarde

Mi bigotudo amigo.

(...) Seguramente será la carta más larga que he escrito en mi vida, porque tengo que estar trabajando hasta la 7 y lo más macanudo es que como no tengo qué decir cosas interesantes, voy a escribir cada sinsorgada que se va a hundir el universo.

Eta jarraitzen du:

Hemen nadukate ofizinan España grande baten eraikitzen, zeren españolek Inperio borondatea daukagun. Ekoltzi behar da, gure egunaren laurdena, hamar ordu, gorri-separatistek suntsitu nazioaren eraikitzen.

Aresti eta eleberrigintza. Bere gutunean dio dakiala lau eleberrri aurkeztu direla Euskaltzaindiko sarian, Erkiagaren *Baraibar zalduna*, Txillardegiren *Peru Leartzako*, Etxepare gaztearen *Ithurraldea* laugarren idazle bat aipatzen du (señor que vive en Burriana provincia de Castellon de la Plana, antiguo reino de Valencia, hoy del Cid) Dio, saria emango zaiola txarregi ez denari. (Txillardegik eduki zuen)

Aresti eta Euskarazaintza. Arantzazuko erabakiei bihurtzeko Larreako komentuan egin zena honela iruzkintzen du :

Larreako karmeliten komentuan Zornotzan Joan den urrian

1958.ean euskal estudioen kongresu fantasma bat egin zuten; hortikan atera den erabaki bakarra izan da Euskaltzaindiarekin hautsi egitea. Buru daukate erregadera batek baino txulo gehiago daukan belarri luzeko eta parre zabaleko frai Onaindia Fray sonrisas. Uste dut Durangesadoaren askatasuna aldarrikatuko dutela...

Gainera nezake, halere, Santi Onaindiak garal hartan argitaratu zuela *Mila eusko olerki*, guretzat baliosa izan zena, balta bizi zegoeno ere *Oleri*, *bilduma*.

Aresti eta Mitxelenaren hiztegia

Bestaldetik, Mitxelenak material guztiak bildurik hiztegiaren idazten hasi dela dio. Euskaltzaindiaren jabetasuna izango dela eta Azkuenera ahaztaraziko duela.

Aresti eta aldizkariak. Hona zer idatzi zidan

Euzko-Gogoaz ez daukagu gehiago berririk. Garai heroikoetan Guatemalan agertzen zenean ederki jasotzen genuen, baina Zaltegi arglegi horrek Europara ekarri nahi izan zuen eta atzeko patekin dena suntsitu zioten eta ez da kristorik E.Ga salbatuko duenik

Arestiren idazkia argitzeko, gorago esan dizuedan bezala, euskaldunen zentsurak antzutu zuen Baionan aldizkaria, E.G.ak askatasuna galdu zuen, Aresti, Mirande eta hirurok baztertuak izan ginen. Gero kontatzen du nola Mitxelenaren ardurapean Donostiako *Egan* geroago eta hobeago bilakatzen den eta Arantzazuko *Jakin*-ek astakeria bat egin duela frankisten sindikato bertikala kritikatu, horko fraileak teologia, estampita eta medallitak baino gehiago demokraziaz arduratzen direlako eta bukatzen du esanaz «Para los curas y frailes vascos el Señor deberá formar un paraíso especial más supino que el limbo de los justos».

Aresti eta Blas Otero

Dio pertsonalki Otero ezagutzen duela, haren analaren adiskide

bat dela eta gaztelaniaz Salinas joanez gero hizkuntza horretako poeta handiena dela eta beretzat eredu. Garaiko kulturaren egoeraz hitz egiteko Blas de Oteroren *Ancia* liburua dela eta honela dio:

Bilbon 25 ale saldu dira, Otero bilbotarra delako. Bibliotekak hamar, adiskideek beste hamar nik bat, beraz gelditzen dira lau eta 400.000 biztanle dituen hirian, 100.000 etatik batek literaturaren axola dauka. Alderantziz Igandean Barcelona eta Atléticoaren arteko futbol ligako partiduan San Mamesen beterik izan da. Hamabi peza balo zuena 125 saldu eta tribuna 110 etik 1.000 pesetaraino.

Motel aintza aintza da! San Mamesek 50.000 jende eduki dezake eta Igandean ahal izan bazuten 200.000 sartuko ziren honela bi bilbotaretatik bat futbolzale da (elbarrituak, niniak eta agure atsoak konda). Zer bizitza miresgarria! Ondotik jarraitzen du Oteroren obra alpatu eta goralpatuz.

Gero euskal mundura itzuliz euskal jardunaldietan nola Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna* goralpatu zuen Joycerekin erkatuz. Gero Manu Ziarsoloren tranpa salatzen du, nola gizon horrek Barrutiaren obrari bertso batzuk kenduz besteak «hobetuz» berea bezala aurkezturik, Julio de Urquijo sarria irabazi zuen. Eta faltsua salaturik lortu zuela «Txinpartak» taldeak antzerkia eman ez zezan. Jardunaldi berdinetan goresten du nola Aita Zavalak bertsolaritzaz hitz egin zuen esanez «enormemente sensato, tan sensato que no parece jesuita, ni siquiera cura»

Hurrengo orrialdean dio Anaitasunaren argitaratzearekin egin duten kolpea baino ederragoa egingo dutela euskara Radio Bilbaon sartuz, euskarari buruzko aldarrikapen baten egitea salatu direla, baina taldea txikiago eta ezin konpondua handiago, Etxalde, Irigoyen, Mitxelena, Txillardegi eta Arestiren artean ez dutela lortu batasunaren egitea. Beste gauza asko kontatzen ditu, baina giroaren eza-gutzeko nahikoa xehe-xehea txiki txikia idatzia den gutun horretan. Honekin Arestiren kartaren itzulpenarekin bukatzen dut.

Zentsura

Francoren zentsura bazen, baina euskaldunena txarrago. Gogoratzen naiz 1960an Aljeriako frantses torturatzailleak alpatzen zituen

ipuin bat ez zidatela Pariseko *Elgar*-en argitaratu alegia euskaldun gaia ez zela. Aldizkariaren orduko euskaldun zuzendaria Pierre Ibarondo frantses eskualduna sozialista alderdikoa mehatxuka ibili zitzaidan eta gurasoel bisita bat egin ere horretaz jarduteko: argitaratzen bazen nire lanpostuaren galtzea arriskatzen nuela. *Eganek*, Francopéan 1962an ipuin hori argitaratu zuen.

Halaber, Franco hil eta bi urteren buruan Miranderen prosazko lanen biltzea *Gero*-k eskatu zidanean, gure idazle horren hiru artikulu kritiko kendu zizkidaten. Ez ninduten abisatu argitaratu zenean. Liburu urte baten buruan erosi nuen. Liburuaren egilea nintzela ez zen agertzen, bakarrik bi hitzaurretatik baten idazlea nintzela. *Jon Miranderen lan hautatuak* liburu agertu zen, *Gernikan* eta *Euzko-Gogoan* aspaldian argitaratu artikulua kenduta.

Gero argitaletxeko Xabier Letek tinta gorritz idatzi lau orrialde trinko bidali zizkidan zentsuraren justifikatzeko eta hori Franco hil eta gero. Garaiko hiru zentsurak, Francorena, Elizarena eta euskaldunena zelari zeuden liburu bat abiatu nuen eta disgustuz utzi, euskaltzale handi batzuek beren izenak zikindu zituztelako beste idazle on ziren Artze, Davant, eta Miranderen lanak bahieraziz edo argitaratzea eragotzil.

Oroitu behar dugu gure artean zakurlana egiten ibili zirela Justo Mokoroa Miranderen kontra eta Ion Oñatibiak frankisten prentsan, Davant salatu marxista zelako Euskaltzaindian sartu zela. Garai haietan, Davant gure zuberotar euskaltzain hori ez zen ausartu Hegoaldera etortzen eta idatzi zuen *Euskaldun laboraria* liburuaren argitaratzea oztopatu zitoten. Etxalde bere *Alostorrea* argitaratzeko ezezkoak Gipuzkoan edukiz zituen. Sabin Untzuruntzagak Madrileko zentsore erdaldun batengandik lortu zuela baimena. Ez uste Iparraldean Francorik ez zelarik gauzak hobeki joalten zirela, apezek euskaraz egin liburuak zentsore euskaltzale handi eta kanonikoa zeukaten obispaduan; eta zentsore berdinak Lafittek 1910an idatzi liburu bat Etxepare medikuaren *Buruxkak* argitalpen guztietan zentsuratu zuen.

Mirandek Ibiñagabeitiari erantzun zion elkarrizketa batean 1953an bere olerkiak argitaratuko zizkiola eta batzuk erotikazkoak zirela. Lafitte kanoniko zentsoreak alegia pornografia edo lizunkeria izango zela, «*Herria*»n Miranderen kontra sekulako artikulua idatzi zuen «*Eskuara eta lizunkeria*», gaineratuz euskararen arloa zela erlijioa eta gai horietan baizik ez zezakela frutu onik eman. Ion Mirande

berak, Ibiñagabeitiak eta Nemesio Etxanizek erantzun zioten Alta Mokoroa dena moko eta orroa, apezpikuaren ikusten ibili zen Miranderen obrak debekatu behar zirela gazteria ustelduko baitzuten. Eta obispo argiak erantzun debekatuz izugarriko zabalkundea ezagutuko zuela. Bestalde, Ibiñagabeitiaren «Olerkarienean» artikulua hori *Euzko-Deyan* argitaratu baitzen, Xabaño izeneko misiolari basko frantses batek aldizkari kristau hori mehatxatu zuen sekulan berriz Mirande alpatzen bazuten Erroma abisatuko zuela Vaticanoko Index-ean irakurgai debekatuen artean sartua *Euzko Deya* izan zedin.

Zorionez abade guztiak ez ziren ez Lafitte, ez Xabaño, ez Mokoroa, bagenituen gure lan bortitz guztien onartzera gerturik zeuden Salvatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz eta Jokin Zaitegi.

Prakadunen artean ez ziren hobe Orixe eta besteak, Txillardegiren kontra geroago gogor egingo dutenak, kristau pentsaeraren monopoloa mantentzeko.

Garai haietan Nemesio Etxaniz, ikusirik dantzalekutan gaztelania baizik ez zela entzuten, rumba, tango eta beste dantzen musika eta hitzekin idazten hasi zen. Esan gabe doa elizako batzuez oso galzki ikusia zela euskal literaturari intzentsu usain horren kentzea, batik bat abade baten ganik baitzeturten. Bizpalau aldiz ikusi eta hitz egin nuen berarekin Euskal Herrian. Apeza zen baina ez eklesiastikoa, eta esan zidan, behin, Parisen ezin zuela Eliza utzi nahi baitzen Euskal Herrian egon eta euskaltzale bezanbat abertzale porrokatua genuen Don Nemesio.

Itzultzaile handiak. Girol girol ez ginen arrosaz betetako baratzean bizi. Denbora berean erbestean itzulpen politika handia eta beharrezkoa abiatu zen euskara aberastu nahiz, euskara gaitu nahiz. Jadanik gure hamarkada horretan Parisen Ibiñagabeitiak Birgilioren *Unai kantak* eta Ovidioren *Maitabidea* itzuli zituen, eta Zaitegik bere *Platonen atarian*, filosofo horren lan guztiak.

Antzerkiak ere itzuli ziren eta batik bat Shakespeareanek, Bizente Amezaga Uruguayan zegoelarik *Hamlet* gipuzkera osatuan eman zuen, Shakespeare osoa bizkaieraz eman zigun, aldizkarietan banatuak eta Klasikoak bilduman *Euskal Editoreek* emanak.

Iparraldeko idazle atzerakol eta sasi-populista gehienek horretaz parre egin zuten. Askoz geroago, halatan ere, Narbaitz kanonikoak Pascalen *Gogoetak* euskaraz ematera ausartu zen. Egia da itzulpen-

gintza aurrerapen ederrik egin dela ez gabiltzala gehiago ez euskanoñol, ez aranismo garbizalez betetako testuekin eta zernahi itzulpen daukagula. Asko irakurriak ote? Bestalde Miranderen kasuan inork ez du oraindik benetan itzuli, nahiz olerkiak, nahiz eleberria «itzultzal-leek» gaztelaniaz birridatziak izan dira.

Iparraldeak oraindik hamar bat urte itxoin behar izan zuen bere lo zorrotik esnatzeko eta beste hamar, 1980an gazte batzuk utz zetzaten Acción Católica literatura arrosaz idaztea oraingotar literatura baten egiten has zitezenei *Maiatz* aldizkariaren inguruan. Jadanik Mirande eta Ibiñagabeltia hilak ziren eta Peillen bere Pariseko erbes-tetik Zuberoako eta Hegoaldeko garretan berotzen jarraitzen. Gaur ere hemen nago. Iparraldean sekulan ez didate zuek eskatu dida-zuena eskatu. Orain arte ez dut hitza izan. Ez zaie gogotik igaro.

Zerbait esateko liburugintzaz jakingarria da ikustea 1941ean lau liburu Iparraldean agertu zirela, baina geroztik beti lauekin gaudela. Nik aipatu hamarkadan urtero 10etik 30 liburuetara argitaratzen zen euskaraz Pizkunde baten lehen emaitza urria baina jarraikia. Beste hamarkadan gutti gora behera 50 bat liburu. Franco hil eta gero ehunetik goiti beti. Iparraldean azken hamarkadan, alfabetatzea eta ikastola garatu arren ez da liburugintza goiti joan, Frantziaren aldetik eta erdi bernes departamendutik ezpaita iñolako diru laguntza se-rriorik izan.

Bestalde Iparraldeko euskaltzale gazteek orain euskaraz hitz egi-ten dute ahal bezala, eta zaharrek euskara ederki dakitenei batzue-tan ez dute beren frantses kalakarekin amor ematen. Euskara hau-rrekin eta hegoaldeko anaiekin hitz egiteko da. Zorionez frantsesez ez dakizuelako euskal katedradun handi bat euskaraz entzuten dut. Frantsesez pentsatua niretzat frantses pentsamendua da.

Horrek ez du esan nahi beste hizkuntzarik erabili behar ez dugu-nik. Europarra naiz eta salatu naiz euskal pentsamendutik kanpo ere ibiltzen: denak ez argitaratu arren, frantsesez lau liburu idatzi ditut, gaztelaniaz bat, eta euskaraz hogeita hamar bat.

Agian nire buruaz eta eskarmentuaz gehiegi hitz egin dut, zeren hobekienik eta aspaldianagotik ezagutzen dudana idazlea nire burua naizen. Duela bi urte euskal idazle mende erdia, nire euskal idazle berrogeita hamar urteak ospatu nituen. Esango duzue apika, nitaz

arrazoiekin, Bizkaian dioten bezala, beren burua azaltzenegi dutenez «onek ez dauka amamarik».

Barkatu nire iluntasunak eta goibeltasunak. Uste dut hamar aldiz mintzatu naizela Jon Mirandez baina honekin batean erakutsi nahi izan dut zer harreman izan genuen hamarkada hartan harekin eta Mirande ez zela desertuan jalo onttoa; izan zituela literaturan bederen gogaideak, jarraltzaileak eduki zituela modernitatean sartu zirenak eta bazterrean utzi zituela azken aranista-folkloristak mundua aldatzen ari zela konturatu gabe idazten zutenak.

Miranderen biobibliografia

Hitz lauz Jon Miranderen eleberria eta ipuinak.

1. *Haur besoetako*a, Lur Kriselu saila, Donostia 1970 (Bere bizian argitaratu liburu bakarra, G. Arestik, egilearen baimenarekin, orduko euskara batura aldatua).

2.en arg. Hor Dago 1983.

3.en arg. (*H)aur besoetako*a Andolin Eguzkitzak aurkitu lehenbiziko idazkera, gipuzkeraz idatzia.

4.en arg. gaztelaniazko itzulpena, 1991.

5.en Erein 1987.

6.en arg. Orain 1995.

7.en arg. Erein 1996.

Jon Mirande-Gil Berak adaptatua eta aldatua, *La Ahijada* Pamieia, Iruinea, 1991 (Hor azaltzen da argitalpen guztiek Mirande bezala emango duten, Tauriac haren adiskidearen argazkia).

Jon Mirande: *Miranderen idazlan hautatuak*, Gero, Bilbo, 1976 (Izenik gabe argitaratua nahiz Txomin Peillenek bilduak eta iruzkinduak izan eta «por supuesto» Mensajerokoek zentsuratua).

Jon Mirande: *Gauaz parke batean: Ipuin izugarriak*, P. Urkizuk prestatua, Elkar, Donostia 1984.

Hitz neurtuz

Jon Mirande: *Orhoituz*, Kriselu Donostia, 1976 (Andolin Eguzkitzaren edizioa, Miranderen azken eskuldazkitik).

Jon Mirande: *Ene jainko eidol-zaharra lur*, Elkar Donostia, 1984 (X. Olarrak Miangolarra eskuldazkia artoski argitaratua).

Jon Mirande: *Poemak*, Pamiela, Iruinea, (Txema Larreak olerkiak kantuak eta Itzulpenak, nahaslan).

J. Mirande: *Ilhun-argiak*, Claro-oscuros. «Adaptación» al castellano por F. Juaristi E.H.U. 1992.

Obra ia osoa

J. Miranderen *Obra osoa*, Hiria arg. Alegia, 2000, bi tomotan.

Saioak

Miranderen lan kritikoak, Pamiela, Iruinea, 1985 (Mensajerok zentsuratuz zizkidan testuak eta beste idazki batzuk Txema Larreak ongi argitaratuak).

Gutunegia

Jon Miranderen gutunegia, P. Urkizuren edizioa, Susa, Zarautz, 1995 (akatsak eta jende izen asko Itxuragabetuak).

Kidetasunean

Jon Etxalde Itharte: *Etxahunen bertsoak gipuzkeraz*, (Jon Miranderen kidetasunez) Itxaropena Zarautz, 1969.

Jon Mirande-Txomin Peillen: *Igela*, euskaldun hererodoxoen errebista. Paris 1962, 1963, 1964) *Igela*, liburu moduan, Donostia Hordago, 1979.

Miranderen obraz

Luis Maria Mujika: *Jon Miranderen poesigintza*. Haranburu ed. Donostia, 1984, bi tomotan.

Joxe Azurmendi Otaegi: *Mirande eta Kristautasuna*. Gipuzkoako kutxa, Saia-keran Irun saria, Donostia, 1978.

———: *Nietzsche, Spengler, Schopenhauer Miranderen pentsamenduan*. Susa, *Iraungo bilduma*, Donostia 1989.

Jose Maria Satrustegi: «Jon Miranderen Itxaropen-gutunak» *Egan*-3-4, 1984 (69-86 or.) (N. Tauer Pragako euskaltzaleari gutunak).

———: «Jon Miranderen etsipen-gutunak, *Egan* 5-6 1984 (41-64 or.) (N. Taueri gutunak).

———: «Jon Mirande euskaltzale» *Egan* 1-2, 1985 (17-40 or.) (N. Taueri gutunak).

Txomin Peillen: «Benetazkoa eta asmatuzkoa Jon Miranderen idazlanetan» *Egan* 1987 1-2 (5-22.or.).

——— «Euskal pagantasunaren berplizkundera gure herriko literaturgintzan eta edergintzan» *Egan* 1989 1-6 (11-41.or.).

——— «Jon Mirande Alphasorho y su novela La Ahijada», in *Jornadas de lengua y literatura catalana, gallega y vasca*, Uned, Madrid, 1992 (99 116.or.).

Mirandetaz literatura:

P. Urkizu: *Etsipenez*, (Jon Chahoren memorioizunak) Elkar Donostia, 1984 (Miranderen bizitza eleberritua gehiegi asmatu gabe eta eskutitzez ballatuz).

Del Olmo (Fr.): *Jon geurea Parisen datzana*, antzerkia, Toribio Alzaga saria, BBK Bilbo 1999 (Jon Mirande maiz bere hitzekin, bere testuekin mintzatzen da).

Beste batzuk

Fernando Sarrailh de Iharza (benetan, Federico Krutwig Salcedo egilea): *Estudio didáctico de una nacionalidad Vasconia*, Buenos Aires (Benetan Parisen) 1962.